

Txangoa

- Arratsalde on! Hau da gure proposamena: ekainaren 16an, Gomiztegi artzain-eskolara joango gara, autobusez.
- Zortzi eta erdietan, autobusa hartuko dugu ikastetxean, eta, goizean, Arantzazu inguruan ibiliko gara.
- Bederatzi eta erdietan, Arantzazura iritsiko gara, eta kiroldegia bisitatuko dugu.
- Hamar eta erdietan, bisita gidatua egingo dugu Gomiztegin.
- Bai, han gauza asko egingo ditugu: baserria bisitatuko dugu, gazta egingo dugu eta artzain-txakurren eta ardien erakustaldia ikusiko dugu.
- Eguerdian, Arantzazuko plazara jaitsiko gara. Ordu batean bazkalduko dugu, eta, arratsaldean, oinez ibiliko gara pixka bat: Aitzulo leizera jaitsiko gara.
- Bostetan, bueltako autobusa hartuko dugu.
- A! Eta eguraldi txarra egiten badu, ez gara Gomiztegira joango; Oñati bisitatuko dugu.
- Hori da gure proposamena. Gurekin etorri nahi?